

WINE PARIS & VINEXPO PARIS 2024

BERTARATZEKO DEIALDIA

- **Data:** 2024ko otsailak 12-14
- **Tokia:** Paris - Porte de Versailles
- **Maiztasuna:** urtero
- **Sektorea:** Ardogintza sektoreko upeltegiak, ekoizleak, handizkariak, inportatzaileak, esportatzaileak, banatzaileak.
- **Izena emateko epea:** 2023ko uztailak 28
- **Azokaren webgunea:** www.wineparis-vinexpo.com

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, Elikaduraren Euskal Industria kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan, **WINE PARÍS & VINEXPO PARÍS 2024** azokan Euskadiko enpresen baterako parte hartzea antolatu du HAZIren bitartez. Azoka, Paris-en ospatuko da 2024ko otsailaren 12tik 14ra.

AZOKAREN IZAERA

Wine Paris & Vinexpo Paris erreferentziazko azokatzat hartzen da, eta Europan eta nazioartean eragina du ardogintzaren eta edari destilatuen sektorean. Azokak profesionaltasun handia du, bai antolakuntzari dagokionez, bai bisitarien profil profesionalari dagokionez.

WINE PARÍS, bere 5. edizioan, VINEXPO PARÍS azokarekin batera egiten da. Horrela, ardoaren eta destilatuen sektoreetako bi lokomotor horien bat-egiteak mahastizaintzako eta ardogintzako ekitaldi indartsu bat sortuko du, eta, gainera, egutegiko lehen nazioarteko azoka izango da, urteko erosketa-aldi onenetako batean.

Nahiz eta bi azokek beren ezaugarriak mantentzen jarraituko duten, denboran eta espazioan aldi berean egiteak abantaila gehigarri bat eskaintzen du, Frantziaren posizioa indartuko duena, nazioarteko mahastizaintza eta ardogintzaren merkataritzarako bidegurutze garrantzitsu gisa.

Wine Paris azokako bisitariak Vinexpo Paris azokan sartu ahalko dira, eta alderantziz. Azoka bezero berriekin topaketak sortzeko eta lehendik daudenekin aurrez aurreko harremanak sendotzeko gune ezin hobea da.

AZOKAREN IZAERA

WINE PARIS & VINEXPO PARIS 2024 DATUAK

**Bisitariak
2023an:**

36.334
Frantzia,
Belgika,
EEBB, Italia,
EB eta
Alemania

Ordutegia:

**09.00etatik
19.00ak arte**

**Erakusleak
2023an:**

3.384
enpresa

**Herrialde
ekoizleak:**

42

EUSKADI BASQUE COUNTRY STANDa

Eusko Jaurlaritzak, Wine Paris & Vinexpo Paris 2024 azokan, gune bat izango du kalitatezko ardoak (JD duten ardoak), JD duen txakolina eta/edo parte hartu nahi duten beste edari alkoholdun batzuk ekoizten dituzten euskal elikagaien industriako enpresei lekua egiteko.

Stand-a **Nazioarteko Hall**-ean egongo da, Nazioarteko pabiloian.

Eusko Jaurlaritzak azoka hau antolatzeko gutxieneko parte-hartzaile kopurua lortu behar da.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Egoitza Euskadin duten eta Eusko Jaurlaritzaren **Elikagaien Industrien Erregistroan** inskribatuta dauden **enpresa ekoizleak** baino ezingo dute parte hartu ekitaldi honetan.

AZOKAREN AURRETIK

- Enpresak ordezkarri bat bidaltzeko konpromisoa hartuko du eta kuota ordainduko du. Euskadiren pabiloian egongo dela jakinarazi ondoren, ezin izango da baja eman. Ezinbesteko kasuetan, eta horietan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresak aurkeztutako arrazoiak aztertu eta, behin-behinean, ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko.
- Enpresek nahitaez agertu beharko dute ekitaldia hasiko den egunaren bezperan, adierazitako orduan, merkantziajasotzeko eta beren standen dekorazioa azkentzeko, ekitaldia hasi baino lehen, nahikoa aurrerapenarekin.
- Enpresa azokaren ordutegi ofizialean standetik joango balitz arrazoitutako aparteko arrazoirik gabe, azokaren hurrengo edizioan galdu egingo lituzke lehentasunezko eskubideak (izena emateko hurrenkera, etab...). Haren eskariari izena emateko eta ordainketa egiteko datetan egin diren gainerako eskariak aintzat hartu ostean baino ez litzaioke erantzungo.
- Halaber, enpresa batek edo hainbatek standa uztearen ondorioz Eusko Jaurlaritzak, bertaratze taldekatuaren antolatzailea izanik, azokaren antolakuntzaren aldetik zehapen ekonomikoren bat jasoko balu, zehapen hori berehala jasanaraziko litzaioke arau haustea eragin duen enpresari edo enpresei.

AZOKAN ZEHAR

- Erakusten diren produktuek soilik Euskadin ekoizitakoak izan beharko dute. Inola ere ezin izango da ez aipatu, ez aurkeztu, beste autonomia erkidego batzuetako produkturik.
- Bere standean egon azokako egun guztietan eta irekiera-ordutegi osoan.

AZOKAREN ONDOREN

- Ebaluazio-inkesta egin; antolakuntzaren jarraibideen arabera bete eta entregatu beharko dute.

PARTE HARTZEKO EREDUA ETA KOSTUA

PARTE HARTZEKO EREDUA

2024ko edizioan, Eusko Jaurlaritzak Wine Paris & Vinexpo Paris azokan gune bat izango du kalitatezko ardoak (JD duten ardoak), JD duen txakolina eta/edo parte hartu nahi duten beste edari alkoholdun batzuk ekoizten dituzten euskal elikagaien industriako enpresei lekua egiteko.



• PARTEKATUTAKO stand eredua

- 1 erakusmahai (enpresak bereizteko trenkadarik gabe)
- Bilera-gune partekatua
- 1 biltegi partekatua

PARTE HARTZEKO KOSTUA

Wine Paris & Vinexpo Paris 2024 azokan parte hartzeak hurrengo kostua izango du:

• Partekatutako stand-a:

2.850 € + BEZ %21 = 3.448,5 €

GARRANTZITSUA:

Espazioaren esleipena izena emateko dokumentuak jasotzen diren hurrenkeraren arabera egingo da, eta ezinbestekoa izango da **ordainketaren egiaztagiria**, zure enpresak **zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak** egunean dituela egiaztatzen duten agiriak bidaltzea eta **izena emate formularioa** betetzea.

Lehentasuna emango zaie [Euskadiko Elikadura Sistemako Enpresa Jardunbide Egokien Kodeari](#) atxikita dauden enpresei.

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

IZENA EMATEKO EPEA: 2023KO UZTAILAREN 28

Leku kopurua mugatua denez, gomendatzen dugu lehenbailehen izena emateko formularioa betetzea eta ordainketaren frogagiria, zure enpresak zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak bidaltzea Begoña Iruskietari: begona.iruskieta@camarabilbao.com

Enpresa parte hartzaileen hautaketa izena emateko dokumentuak jasotzen diren hurrenkeraren arabera egingo da eta lehentasuna emango zaie Euskadiko Elikadura Sistemako Enpresa Jardunbide Egokien Kodeari atxikita dauden enpresei.

Eskabidea osorik egon dadin eta kontuan har dadin, honako hauek bete beharko da:

IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE

Formularioan eskatzen den informaziotik datuak zehazki transkribatuko dira, azokaren katalogo ofizialerako eta prestatzen diren gainerako elementu promozionaletarako.

[IZENA EMATEAK](#)

KUOTAREN ORDAINAGIRIA BIDALI

Kontu zenbakia:

ES49 3035-0179-61-1791069900

Laboral Kutxa HAZIren izenean.

BIC de Laboral Kutxa: CLPEES2MXXX

Kontzeptua: "Enpresaren izena + WINE PARIS 2024".

- HAZI Fundazioko Finantza Departamentuak dagokion zenbatekoaren faktura igorriko dizue, izena emateko epea amaitu eta parte hartzea baieztatu eta gero.

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

GARRANTZITSUA

Enpresa parte-hartzaileak hautatzeko, izena emate-agiri guztiak (formularioa eta ordainagiria) jaso diren hurrenkerari jarraituko zaio. Izena emate-data, ondorio guztietarako, inskripzioaren ordainketa egin den eguna izango da, eta lehentasuna emango zaie Euskadiko Elikadura Sistemako Enpresa Jardunbide Egokien Kodeari atxikita dauden enpresei.

Eskatutako izena emateko formularioa betetzeak EZ DAKAR enpresak Euskadiren pabiloian parte hartzea; izen-ematea onartu dela jakinaraziko da.

ENPRESAK FAKTURA JASO, HAU DA, EUSKADIREN STANDEAN SARTZEAREN JAKINARAZPENA JASO ONDOREN PARTE-HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU.

Ezinbesteko kasuetan, eta horietan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresa erakusketariak aurkeztutako arrazoiak aztertu eta, behin-behinean, ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartzen:

- Enpresa erakusleek eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek eskubidea izango dute aurrez izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halaberrez edo nahiko partaiderik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, HAZIren bitartez, zerbitzu hauek eskainiko ditu:

1 Espazioa kontratatzea

Sustapen-espazio batekin parte hartuko da, enpresa erakusketariak partekatutako stand batean banatuko da.

2 Stand-aren dekorazioa

Standaren oinarrizko apaingarriak eta altzariak uniformeak izango dira Euskadiko pabiloiko erakusketari guztientzat.

- Honako hauek osatuko dute standa: erakusmahai (enpresak bereizteko trenkadarik gabe), bilera-gune partekatua eta biltegi partekatua.

Oharra: Stand partekatuaren modalitate honetan, espazioaren arabera, ezinezkoa da enpresa erakusleak hotz-kamerarik jartzea.

3 Stand-aren mantentze-lanak (garbiketa, elektrizitatea, ura...)

Eusko Jaurlaritza arduratuko da garbiketa- eta elektrizitate-zerbitzuez eta, oro har, pabiloiaren mantentze-lan egokiaz. Hala ere, enpresa bakoitza arduratuko da bere erakusketa- gunea baldintza onenetan mantentzeaz.

Oharra: kostua handitzea edo aldatzea dakarren oinarrizko altzarien, elementu elektrikoen edo behar elektrikoen behar oro dekoratzaileak enpresa erakusketariari fakturatuko dio zuzenean, eta enpresa horren kontura izango da zenbatekoaren igoera.

4 Kopa eta listu ontzien zerbitzua

Kopen alokairua erakusketariaren kontura izango da. Hala ere, Saila enpresen esanetara jartzen da zerbitzu horren kontratazioa koordinatzeko. Listu-ontziak erakusketakidearen paketean sartzen dira, eta parte hartzen duen enpresa bakoitzeko ordaintzen da.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK

5 Erakusketakidearen paketea

- 24/24 erregistroa online kudeatzeko aukera ematen duen erakusketari-gune pribatizatu baterako sarbidea.
- Erakusketarientzako 3 pase.
- Dastaketa egiteko kit bat (kortxo-ateratzeko, listuontzi, 3 drop-stopper, tapoi antioxidatzaile, ur-botilak).
- Listu-ontzia husteko zerbitzua.
- Enpresa eta bere izendapenen aurkezpena Wine Paris & Vinexpo Paris 2024 online katalogoan.
- Ekitaldiaren aurretik hitzorduak eskatzea eta mezuak (mugagabea ekitaldia baino hilabete lehenago eta 2 aste geroago).
- Enpresaren aurkezpena mapa interaktiboan.
- Mediakit: web-banner pertsonalizatua logoarekin eta stand zenbakiarekin.
- 75 gonbidapen elektronikoko.

6 Merkantziaren garraioa

Eusko Jaurlaritzak salgaien bidalketa elkartu bat antolatuko du, esleitutako garraiolari ofizialak adierazten duen leku komun batetik salgaiak standen bertan entregatu arte. Dagokionean, enpresa garraiolari adjudikaziodunaren datuan emango dira. Garraioaren kontratazioa indibiduala izango da; ondorioz, garraiolariak zuzenean bidaliko dio enpresa erakusketariari salgaiak bidaltzearen kostua, eta zerbitzua enpresaren kontura izango da.

7 Azokaren katalogo ofizialean agertzea

Eusko Jaurlaritzak beharrezko izapideak egingo ditu azokara joaten diren enpresa erakusketari guztiak azokaren antolakuntzak argitaratzen duen katalogo ofizialean inskribatuta ager daitezen eta ekitaldiko erakusketari guztiak erregistratuta ager daitezen (izena emateko [formularioan](#) jasotako datuak agertuko dira). Gainera, gure upeltegiak azokan izango duten presentzia ahalik eta errentagarrien bihurtzeko beharrezkoak diren kudeaketak egingo ditu, eta azokaren sustapen-aukera guztien berri emango du unean-unean.